

**Martxoak 3aren 33. urteurrena:
Oroimenaren, justiziaren eta ordainaren alde. Kriaren aurka.**

Urte bat gehiago, eta badira 33 urte 1976ko martxoaren 3ko gertakizun triste eta kriminal haiek izan zirela, eta oraindik egia osoa jakin gabe eta erabateko justizia ezagutu gabe jarraitzen dugu. Klase politikoaren burugogorkeriak bere horretan dirauen arren, gure oroimenari eta borrokari esker, eman dira aurrerapausoak, baina oraindik ez da aski lortu duguna. Beraien borondatearen aurka, baina onartu behar izango dute egindako mina eta baita nolabaiteko satisfazioa kaltetuei eman ere, nahiz eta batzuen borontate eta anbiguetate gainetik onartu izan ziren lege eta mozioek bete izan beharko dituzte gertakari lazgarri hoiengatik. Ondo dago martxoaren 3ko gertakizunetan kaltetuak izan zirenei ordaina ematea, baina ez da bidezkoa Gasteizko hiritar guztiei satisfaziorik ez ematea, orduko agintariek gertakizunetan izan zuten ardura politikoa ez baita errekonozitu oraindik.

Giza eskubiderik oinarritzkoenak zapalduak diren egoeran gaude: Alderdi Politikoen Lege ez-demokratikoaren babesean hainbat aukera politiko, legitimoak direnak, legez kanpo jarri dira; atxilotetak eta espetxeratzeak gero eta ugariago ematen dira, milaka biztanleren bozketa eskubidea bahituz. Guk tinko eusten diogu pertsona orok dituzten eskubide guztiak defendatzeko konpromisoari, euskal gizarteak bide zibil eta demokratikoak erabiliz egin behar baitu aurrera, inongo eta inolako biolentziarik gabe.

Aurten, martxoaren 3ko gertakizunak eta gertakizun haien arduradunak gure oroimenara ekartzeaz aparte, garai honetan sufritzen ari garen kriaren aurka altxatu nahi dugu gure ahotsa. Gero eta enplegu gehiago suntsitzen da, gero eta ugariago dira krisiak jotako enpresak eta gobernuak hor ari dira diru publikoarekin finantza-sektoreari laguntzen; beraz, herritarrok gara kriaren ondorioz latzenak jasan behar ditugunak, eta, modu berezian, egoera prekarioan daudenak, hau da, etorkinak, gazteak, emakumeak...

Lehendabizi, bankuen jokabidea salatu nahi dugu, neurrigabeko diru-gosea erakutsi baitute epe laburreko irabaziak eskuratu nahian. Eta orain hor ari dira, batere lotsarik gabe, diru-laguntza eske, euren kontuak konpontzeko. Bigarrenik, Espainiako, Nafarroako eta EAEko gobernuen jokabidea salatu nahi dugu, hauek ere hor ari baitira, presaka batean, gutxien behar dutenei lagundu nahian, bitartean langilearen arazoak konponbidea gerorako utzita. Azkenik, nola ez, enpresariengatik jokabidea ere salatu nahi dugu. Izan ere, enpresariengatik diru publikoa jasota eta langileen kontura gainditu nahi baitute krisialdia. Horren adibide gisa, hor dauzkagu aldi baterako langileen kanporatzeak eta zorioneko EREak. ERE hauek, kasurik onenean, irabazien galera nabarmena dakarte langilearentzat, eta, kasurik okerrenean, enpleguaren desagitea, Icoa eta Filo sin enpresetan gertatu den bezala.

Honen guztiaren aurrean, martxoaren 3 hartan genituen baloreak berreskuratu nahi ditugu: partaidetza, klase mesfidantza, borrokarako grina, elkartasuna eta diskriminaziorik eza. Irabazitako eskubideetan atzera pausorik ez ematea izan behar da gure jomuga patronalaren aurrean. Garai haietan bezala, orain ere, gudan dago amorrua eta aldaketarako itxaropena. Gaur, kapitalismoa krisian dagoen honetan, gure oihu antikapitalista jaurti beharrean gaude. Aberastasuna hobetu banatu behar dela sinisten dugunok, gizakien eta natura beraren esplotazioa kapitaldunen onura-iturria izateri utzi behar diola uste dugunok, ezin gara itsuan erori mundu osoan zabaldutako erreforma aire berrien lakioan. Beraz, herritar guztiei egiten diegu dei, soldatako izan ala ez, egun horretan kalera irten eta bere haserrea adierazi dezan.

**26an kriaren aurkako Asanbladara joan zaitez, 19:00an, San Frantzisko Elizan
Martxoaren 3an joan zaitez manifestaziora, 19:00an, San Frantzisko Elizatik**

